

HITZALDIA

"ORATORIA PRAKTIKOAREN ESTRATEGIA ABOKATUENTZAT"

Hizlaria:

Julio García Ramírez:

Abokatua. Oratoriaren Estrategian eta Komunikazioan Graduatua New York Estatuko Unibertsitatean.

Besteak beste, "*Estrategia de oratoria práctica para abogados*" izeneko liburua idatzi du Rasche Argitaletxearekin, eta monografiarik salduenetako bat izan da Espainian, 16.000 ale baino gehiago saldu baitira.

Halaber, "*Las cuatro habilidades del abogado eficaz*", Rasche argitaletxearekin.

Eta "*La Técnica del Interrogatorio*" izeneko liburuaren egile eta koordinatzaile izan da; 2012 eta 2013 urteetan monografia juridikorik salduena.

Lawyer Training Abokatu Eskolaren fundatzaile da, eta enpresa hau liderra da Espainian abokatu, gizarte-graduatu eta beste eragile juridiko batzuen prestakuntzan, dagoeneko 30.000 lankidek baino gehiagok erabili baitute metodo hori. Litigazio Institutuko Zuzendaria. Julio García Ramírez Formación y Coaching eta Abogacía en Positivo erakundeen fundatzaile.

HELBURUA:

Areto judizialaren barruan **behartuta gaude** abokatuok, epaileak geure proba eta argudioak lankidearenak baino hobeto balioesteko zortea izan ala ez izan, **auzibidearen, konbentziarazteko gaitasunaren eta psikologiaren**

estrategiarik onenak eta berrienak ezagutzera, eta esparru horietan etengabe eguneratuta egotera.

Abokatutzaren lanbidean aritzeko **funtsezko gaitasun horien menderakuntzan inbertsio bat egiteak** lagundu egingo digu edozein auzitan gure lehiakidearekiko **abantaila handiagoa erdiesten.**

Ikastaro honek auzi-estrategien eta auzi-aretoan konbentziarazteko gaitasunen **azken berritasunak** eskainiko dizkigu, eta, beraz, helburu hori erdiesten lagunduko digute.

EGITARAUA:

"ORATORIA PRAKTIKOAREN ESTRATEGIA ABOKATUENTZAT"

1 MODULUA.- Alegatua.

- Bere benetako garrantzia. Gure alegatua nola hobetu.
- Alegatu baten zatiak.
 - Gure azalpenaren prestakuntza.
 - Hasiera.
 - Argudioen azalpena.
 - Azaldutako argudio bakoitzaren proba nabarmentzeko eta indartzeko modua.
- Ondorioa. Auziaren emaitzaren gaineko erantzukizuna organo judizialari transmititzeko ondorioak: gure alegatuaren amaierako fasean epaileari emozio jakin bat helarazteko teknikak.

2. MODULUA.- Galdeketarako teknikak.

- Gure bezero eta lekukoen ez-ahozko lengoaia.
- Xehetasunen sinesgarritasuna.

3. MODULUA.- Aretoan gure argudioak azaltzen ditugun bitartean ez-ahozko komunikazioaren garrantzia: oinarrizko elementuak.

- Begirada.
- Gorputzaren jarrera eta keinuak areto barruan.
- Nola baliatu eskuen mugimenduaz gure alegatua sinesgarriagoa izan dadin.

4. MODULUA.- Alegatua eraginkorragoa izan dadin laguntzen diguten faktoreak.

- Intonazioa.
- Erritmoa.
- Etenaldiak.
- Hizkuntzaren argitasuna.

5. MODULUA.- Beldur eszenikoa nola gainditu.

- Urduritasuna kontrolatzeko teknikak.
- Inprobisatzeko teknikak: ahalik eta bermerik handienarekin gauzatu behar den premia profesional bat.
- Argudioak memorizatzen laguntzen diguten teknikak, "zer esan jakin gabe" ez gelditzeko.